



Uzturreko gaztelu zaharra suspertzeko auzolandegia

TOLOSA ▶ Aranzadi Zientzia
Elkartek zuzenduko ditu lanak,
uztaileko bi hamabostaldietan

'SARIA' ▶ Izena ematen dutenak
Eduarne Pasabanekin joango dira
Pirinioetara abuztuan, astebetez ▶ 3

TOLOSA ▶

Et Incarnatus
orkestraren
solstizio
kontzertua

Gaur, Urkizuko
Iraolako zuloan ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

Papergintza
«egoera
larrian» dela
salatzeko

Manifestaziora deitu du
LABek bihar Tolosan ▶ 6



J. ASTIBIA

Karrape irratiaren saio berezia, bihar

LEITZA ▶ «Udari ongietorria egiteko», igerilekutik aparteko irratsaioa
eskainiko dute San Joan bezperan: suak eta festak, opariak... ▶ 7

VILLABONA ▶

Pello Zelarain Euskal Herriratzeko
eskatuko dute manifestazioan

Bihar da protestaldia; etzi beteko ditu zortzi urte preso ▶ 5

hitza

Harpidedunen
txokoa

Aisialdi planik ez duzula?
HITZAK aukera paregabea emango dizu

- 1 Bidaia zoragarri bat Tenerifera 2 lagunentzat
- 2 Luxuzko otordu berezia Tolosako Zumeta Jatetxean

Ez galdu aukera! Egin zaitetz harpidedun ordaintzaile!

PARTE HARTZEKO:

Maiatzaren 30etik ekainaren 25era argitaratzen diren boko hauetako bat, zure datuekin bete eta bidali ondoko helbide honetara. **Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza • Araba etorb, 5 • TOLOSA**

Ekainaren 26an irabazlearen izena **HITZAn ZORTE ON!**

Zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea.

1

TENERIFERA BIDAIA

2 lagunentzat astebeteko egonaldia



LAUTREK
bidaia agentzia
korreo kalea, 52 • TOLOSA
Tel.: 943 67 39 99 - 943 67 39 21
Faxa: 943 67 39 12
zure neurritako bidaliak
antolatzen ditugu

2

OTORDU EDERRA

2 lagunentzako
Tolosako Zumeta jatetxean



Berjaldegi Plaza, 2/g • Tolosa
Tel.: 943 88 28 93

bete zure datuak

Harpidedunaren kodea.....
Izena.....
Abizenak.....
Helbidea.....
.....
Herria.....P.K.....
Telefona.....
Pelektronikoa.....

SANJOANAK ▶

EGITARUA ▶ HERRIZ HERRI

**ABALTZISKETA
GAUR**

23:30. Imuntzo eta Beloki trikitilariak, goizaldera arte.

BIHAR

17:00. Ume jolasak herriko gazteentzat. Gero, merienda.
21:30. San Joan sua. Jarraian, San Juan Dantza eta Soka Dantza herrikoek dantzaturik.
22:30. Asto karrera.
23:30. Triki-Truku taldearekin erromeria. Atsedendaldian, zurito apustua.

LARUNBATA ▶

11:00. Meza nagusia. Jarraian, herriko gazteen trikitixa emanaldia.
13:00. II. Toka Txapelketa plazan.
18:00. Pilota partidak, gazteen eta nagusien mailan. Segidan, bertso saioa Larrañaga eta Joxe Agirrearekin.
21:00. Sagardo dastaketa plazan, norberak bere afaria eramanez.
Ondoren. Kupela taldearekin dantzaldia, eta atsedendaldian txinga apustua.

IGANDEA

11:00. IV. Plater Tiraketa Lehiaketa herrikoentzat.
18:00. VII. Zaldi Karrera, Amezketatik Abaltzisketara.
18:30. Aimar Irigoien harri-jasotzailearen erakustaldia. Ondoren, Mugerza eta Otaegi aizkolariak. Segidan, Etxabe anaiak trikitilariak.
22:30. Etxabe anaiak berrito, eta atsedendaldian herriko

eskolaren aldeko txekorraren zozketa.

ALEGIA**GAUR**

20:45. Salbea.
21:00. Emanaldia plazan: Txintxarri abesbatza, herriko dantzariak, Loatzo musika eskolako soinu-joleak eta txalapartariak, eta herriko txistulariak izango dira.
Segidan. Bedeinkapena eta San Joan sua izango dira.

LEITZA**BIHAR**

18:00. Umeen ingurutxoak plazan. Ondoren, txistor bokadiloa umeentzat—500 boilo banatuko dituzte—, ura eta freskagarriekin batera.
21:00-21:30. Herri afaria plazan, bakoitzak berea eramanda. Edaria herriak. Eguraldi txarra egitekotan lekua aldatuko dute.
00:00. San Joan sua piztuko dute, eta Nekaezinak txarangak plazan arialdia egin ondoren, herrian barrena kalejiran ibiliko dira. Herriko tabernak gau osoan irekita egonen dira.

ARESO**BIHAR**

21:00-21:30-22:00. Herri afaria, bakoitzak berea eramanda, plazako larratxean.
Ondoren. San Joan sua, herriko trikitilari eta panderojoleekin.

BELAUNTZA**Festa ofizialak****BIHAR**

21:00. San Joan sua kanpai eta suzirikin batera. Jarraian, herri afaria / kantu afaria.
Ondoren. Pagadi osaba-ilobak trikitilariekin goizaldera arte erromeria.

LARUNBATA

11:00. Herri meza.
Ondoren. Herriko tabernan hamaiketako. Jarraian, bertsolarien lehen saioa, Mañukorta eta Gorrotxategirekin.

18:00. Pilota partidak herriko gazteen artean.

19:30. Bertsolarien bigarren saioa.

20:00. Herri kirolak: Josebeto Goikoetxea, Etxebeste eta Olasagasti. Ondoren, erromeria goizaldera arte Xabier eta Mikel trikitilariekin.

IGANDEA

11:00. Meza nagusia. Ondoren hamaiketako herrikoia.
16:30. Haur jolasak eta puzgarriak, eta txokolate-jatea.
18:00. Toka, txinga eta bolo txapelketa. Plazan kostilla-jatea barrikotearekin, Udalak eskainita. Jarraian, jaiak bukatzeko erromeria goizaldera arte Pagadi osaba-ilobekin.

Festa alternatiboak**BIHAR**

21:00. Jaietxer emateko txupinazoa.

Ondoren. Herri afaria (25euro).

LARUNBATA

11:30. Hamaiketako.

18:00. Berastegiko dantzariak. Ondoren, txokolate-jatea.

21:00. Tortila lehiaketa, ondoren egingo den afarian dastatzekoak.

VILLABONA**BIHAR**

22:00. San Joan sua, Oinkari dantza taldea, Eresargi abesbatza eta Santio txistulari taldearekin, Erreboteko plazan.

ZIZURKIL**BIHAR**

18:00. Pilota dantza ikasteko bigarren entsegua Otaño Ikastetxeko gimnasioan.
20:00. Dantzari eta trikitilariak Joxe Arregi plazara bilduko dira, herrian zehar ibilbidea egiteko. Ubare aldera joko dute.
22:30. Joxe Arregi Plazako sua piztu eta dantza egingo dute.

ANOETA**BIHAR**

18:00. Buruhandi eta erraldoien kalejira txistulariaren.
19:00. Udalak ardoa eta gailetak eskainiko ditu udal txokolate arkupeetan.
20:30. Herri afaria plazan.
22:45. Suaren inguruan San Joan kantuak, San Joan zortziko dantza eta erromeria: Markos Landa aita-semeak ahasoinuarekin.

LARUNBATA

11:00. Txistulariaren kalejira.

12:00. Meza jubilatuentzat.

Ondoren. Udal dantzari eta txistulariak jubilatuen omenez.

13:30. Herriko jubilatuta eta

pentsiodunen bazkaria eta dantzaldia.

Festa alternatiboak**BIHAR**

20:00. Trikipoteoa.
20:30. Herri afaria plazan. Sua pizterakoan ekitaldia: izpiritu txarrak sutara botatzeko. Pankartak botako dituzte: *AHT eta proiektu txikitzaileak, dispertsio politika, zinegotzi lapurreta eta eskubide urraketa.*

ASTEASU**BIHAR**

20:00. Sua Lamiategi soroan. Txokolatada ere egingo da.

LARRAUL**BIHAR**

20:00. Afaria.
Jarraian. Plazan sua piztuko dute eta erromeria egingo dute.

IRURA**BIHAR**

22:00. Dantzarien saioaren ondoren sua piztuko dute, eta pastak eta ardo-goxoa egongo dira.

ALKIZA**BIHAR**

21:00. Plazan elkartuko dira, eta bakoitzak jatekoa eramango du afaltzeko.
22:00. Sua piztuko dute.

ADUNA**BIHAR**

20:30. Sua piztuko dute
21:00. Txulobi elkartean afaria izango da, 15 euroren truke.

Akelarrearen gaurik motzena

Festa giroan, biharko gauak hurrengo egunari eta urteari ongiatorria egiteko sua piztuko dute bi eskualdeetako hainbat herrietan, uda bertan dela, orain arteko zoria eta izpirituak hobetzeko

NEREA URBIZU

Iritsi da Akelarrearen gaua, ilargiari abesteko gaua: urteko gaurik laburrena, alegia. Suak gizakiarengan betidanik izan du eragina. Aspaldiko urteetan ere ospatzen zuten San Joan bezpera gaua, baina udako solstizio bezala.

Euskal Herriko hainbat istorioetan entzun izan ditugun izpirituak uxatzeko eta aldentzeko aukera izango da biharko gauean. Bi eskualdeetako herri askotan piztuko diren suetan aurtengo izpiritu eta gaisotasunak erretzeko parada izango da.

Herri askotan jaiak izango

dira: sanjoanak. Abaltzisketan, Anoetan eta Belauntzan egingo dituzte jaiak, baina bestetan, sua egingo dute. Aurtun, Leitza, Areso, Alegia, Zizurkil, Asteasu, Irura, Larraul, Alkiza, Aduna eta Villabonan izango da salto egiteko aukera.


Ez dugu akerra gaur egun eskualdean ospatzen diren San Joan gauetan ikusiko, baina bai energia txarrak uxatzeko su ederra. Zeinek daki: Txindoki, Uzturre edota Ernioako mendietan, antzinan ospatuko ziren akelarreetako parte-hartzailearen bat edo bestek eskualdeko suak bertatik ikusiko ditu, eta garaiko sarnak kanporatuko ditu...



Askotan suak hiru metroak menderatzen ditu, baina, hala ere, jendea animatzen da saltzera. HITZA



GIZARTEA ▶



Uzturre mendiaren magalean aurkitzen zen dorrea honelakoa zen. HITZA

Uzturreko gaztelu zaharra suspertuz

Uztaileko bi hamabostaldietan, eskualdeko eta kanpoko gazteek auzolandegietan parte hartzeko aukera izango dute

ESTI EZEIZA

Uztailean zehar, Tolosako ingurumen Sailak sustatuta Kutxaren laguntzarekin, Uzturre mendi magalean kokatuta dauden antzinako gaztelua eta miserikordia zaharra garbitzeko lanak hasiko dituzte. «Uzturre tolosarrontzat mendirik esanguratsuen da, ezbairik gabe; gainera, inguru hau Udalaren eskumena da, eta Uzturreko esparrurik ezezagunena denez, egokia da auzolanak gauzatzeko».

Kutxak urtero gazteentzako lan eta praktika zerbitzuak antolatzen ditu. Bere helburua udan aisirako beste aukera batzuk proposatzea da. Hala, honen harira, «boluntariotza, aisia eta ingurumenarekiko estimua zabaldu nahi» dituzte. Bestalde, Juan Jose Goia Kutxako ordezkariak azpimarratu duenez, «750. urteurrerarekin bat etorritz, oso egokia iruditu zaigu Udalaren egitasmo hau babestea».

Kopuru mugatua

Lanak uztaileko bi hamabostaldietan, 15 eta 20 urte bitarteko bi talderen artean gauzatu dira. Egunero, Triangulo plazan, 08:30etan elkartuko dira langileak, ondoren Uzturreko inguruetara zuzentzeko, eta 13:30ean amaituko dute. Lanak Aranzadi Zientzia Elkar-teak zuzenduko ditu, eta izenemate kopurua mugatua izango da. Informazio gehiago nahi duenak udaletxean edo Kutxako egoitzetan eska dezake. Izena ematen dutenek 125 euro ordaindu beharko dituzte; jardunaldiaren gastuak eta janaldiak ordaintzeko erabiliko da.

Telegrafo optikoa

Santa Luzia auzotik hasten da bidea, eta hegaletako batean oraindik ere antzinako gaztelu baten aztanak aurki daitezke, honek telegrafo optikoa gordezko XVIII. mendeko harrizko dorre bat zuen. Aranzadiko

Juantxo Agirre Mauleonek azaldukoaren arabera, «Tolosako grabatu zaharretan bere silueta Uzturre mendian moztuta agertzen da, baina denborarekin hondarrak narriatuz joan dira». Xedea harrizko dorrearen ikerketa arkeologiko bat egitea da, egitura-ren planoak altxatuz, Uzturrerako ibilbideari balio gehigarri bat emanez.

Edurne Pasabanekin

Egitasmo hau 750. urteurrenaren ospakizunera batzen da, boluntariotza sustatu, ingurumenarekiko jabetza historikoa-rekiko ezagutza zabalatzeko helburuarekin. Hau lortzeko interesa duten gazte guztiak Pirineoetara abuztuan astebetetz egingo den txangoan parte hartu ahal izango dute. Edur- ne Pasaban alpinista tolosarrak zuzenduko ditu, gainera; natur parkeak ezagutzeko, mendiak igotzeko eta arrisku kirolak egiteko aukera izango dute.

KULTURA ▶

Amaroz, berriz ere antzerkiaren eszenatoki

Astehenean hasita, lau egunetan zehar egingo dute VIII. Antzerki Astea auzoan

E. EZEIZA

Datorren astehenean, hilak 26 hasi, eta ostegunerarte, antzerkiaren gozatzeko aukera aproposa izango da Amaro- z auzoan. *Gu ere obratan gaude* lelopean, lau antzezlan ikusi ahal izango dira doan, Amaro- zko VIII. Antzerki Astea- n.

Amarozko Antzerki Arti- sauek antolatuta, Irungo, Pa- saiako eta Tolosako antzerki taldeek beraien lanak taulara- tuko dituzte Amaro- zko Auzo Etxean. Haurrentzako nahiz helduentzako egitaraua pre- s- t- a- tu dute antolatzaileek, gai- nera, saio bakoitzaren aurre- tik, pasta eta kafea aterako zaie bertara hurbiltzen dire- nei.

Aurreko urteetako arraka- s- t- aren ondoren, galdu ezineko hitzordu bilakatu da ekitaldi hau inguruko antzerki- zaleen- tzat.

EGITARAUA ▶

Antzezlan guztiak Amaro- zko Auzo Etxean egingo dira.

HILAK 26, ASTELEHENA
22:00etan. Atp Facto talde irundarraren *Oporrin- vacacioning*, helduentzako antzezlan.

HILAK 27, ASTEARTEA
18:00etan. Gorringo talde tolosarrak eskainiko du *Asto bat hipodromoan*. Hau haurrei zuzenduta egingo da.

HILAK 26, ASTELEHENA
22:00etan. Topo teatro talde pasaitarraren *Entre perro y lobo* helduentzako antzerkia.

HILAK 27, OSTEGUNA
22:00etan. Amaro- zko antzerki artisauek *Un poco de impro* eskainiko dute.

PILOTA ▶

Eskualdeko txapelketa amaitu da

Tolosaldeko esku pilotako fi- nalak jokatu ziren joan den larunbatean, Beotibar fron- toian. Hala, zazpi kategorita- ko pilotariak aritu ziren le- hian, banaka nahiz bikote- ka. Besteak beste, irabazleak hauek izan ziren: Altuna- Ira- zastabarrena, Salbarrena- Garziarena, Murua- Artola, Urbieta- Urruzola eta Lizaso.

TOKA ▶

Jubilatuen Toka Txapelketako finala jokatu da

Asteburuan, Eskualdeko Toka Txapelketako finala jo- katu zen. Sanjoanetako jubi- latuen sarian sei gizonak hartu zuten parte. Lehengo postuan Antonio Iglesias urnietarra geratu zen, zazpi tokaldirekin. Bigarren, ber- ritz, Jose Manuel Ortiz tolosa- rra izan zen, eta hirugarren Angel Izagirre tolosarra.

iragarki laburrak ▶

LANA
Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. Deitu 635 74 52 91era.
Tabernaria. Villabonako taberna baterako neska euskalduna behar da. 15:30etik 22:30era. Igan- deetan

jai. 650 48 79 34.
Sukaldari laguntzailea. Amasan, sukaldari laguntzailea behar da asteburu- etarako. Telefona: 943 69 12 10.
Neska. Neska bat behar da goizez bi haur zaintzeko. Telefona: 607 97 31 34.

ZERBITZU BULEGOA
AIXA
Nominak - Kontabilitateak
Zergak - Autonomoak
Pablo Gorosabel, 4 - 1. esk
TOLOSA
Tel.: 943 65 03 03
Faxa.: 943 65 22 22
mjhuartez@euskalnet.net

Marcel
ILEAPAINDEGINDO ZAKAK
EDERGINTZA
Santa Klara, 9
TOLOSA
943 67 19 30

Tolosaldea BUS S.L. Festa onak
pasa Sanjoanetan!
Ibilaldiak • Ezteiak Agurafariak • Ikastetxeak Kirol taldeak
Tel eta faxa: 943 650621 • mug.: 619 723 819 • Donostia Etob, 9 • TOLOSA

"Xirimiri" Ondo ibili!!
Txokolategia
Errementari kalea, 40
20400 Tolosa
Telef. 943 67 52 23



GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

San Joan
jaiak 2006

Tolosa Bizirik herri ekimeneko hautetsiok San Joan jai zoriontsuak opa nahi dizkiegu tolosar guztiei. Aurten ere, eta dagoeneko laugarrenez, tolosarren laurdenak ez du Udalean ordezkariarik izango. Aurten ere, abertzale eta ezkertiar izateagatik, Tolosa Bizirik-eko hautetsiok ekitaldi ofizialetatik baztertuak izango gara. Beste behin, Udaleko agintariak aspaldiko ohiturak («moldatuko») dituzte gure ordezkariak zilegia ikusiezina bihurtu nahirik, eta aldi berean guztiz faltua den normaltasuna irudikatu nahi izango dute gure begien aurrean.

Hala ere, Tolosa Bizirik-eko bost hautetsiok gure herriarekin batera ospatuko ditugu egun zoragarriak, ospakizunari gure eta beste 2.500 tolosarren eskubide zibil eta politikoen aldeko aldarrikapena baituz.

Gainera, badugu aurtengoa ukazioaren eta *apartheid* politikoaren azkena izango den itzaropena. Legegintzaldi honetan gure herriaren historia-ko orrialde beltzenetako idatzitako da. Baina datorren urteko San Joan jaietarako Udalerako demokrazia, zilegitasuna eta tolosar guztien ahotsa eramateko gure konpromisoa sendoa adierazi nahi dugu.

Horretarako, ezinbestekoa izango da guztiok une erabakigarri hauetan Euskal Herria-

ren eskubideen aldeko aldarrikapenari eustea. Baita Euskal Herriaren alde egiteagatik urrun diren herrikideak datorren urtean gure artean egon daitezuten ere. Haietaz gure besarkada eta muxurik goxoen.

Dei egiten dizuegu, baita ere, egun hauetarako antolatu ditugun ekitaldietan parte hartzea: batetik, ekainaren 23an 19:30ean, Arramele zubian *Euskal Presoak etxera!* eta, bestetik, ekainaren 23an, 22:00etan, Santa Maria plazan San Juan suan.

Gora San Joan Jaiak!

ANTTON IZAGIRRE,
BEGOÑA ALDALUR,
HEKTOR ESPIN, IBAN ORTIZ ETA
AITOR IZTUETA (TOLOSA BIZIRIK HERRI
EKIMENeko HAUTETSIAK) ▶ TOLOSA

KIROLA ▶



Kirol osasuntsuaren alde

Erredakzioa ▶ Bigarren urtez, Bidelan-Kirolgi taldeko txirrindulariek kirol eta etika konpromisoaren kontratua sinatu zuten, atzo iluntzean, Tolosako Asuncion klinikan. «Kirol osasuntsuaren aldeko, lehia garbiaren aldeko, norbanakoaren balaioen garapeneren aldeko» konpromisoa izan da. NOELIA LATABURU

MUSIKA ▶

Et Incarnatusen VII.
Solstizio Kontzertua
gaur, Urkizun

Iraolako zuloan emanaldia eskainiko du orkestra tolosarrak, 20:30etik aurrera; ondoren afaritxoa eskainiko dute

ERREDAKZIOA

Aurreko urteetako arrakasta aintzat hartuz, aurten ere Et Incarnatus orkestrak udako solstizio kontzertua eskainiko du, gaurkoan, 20:30etik aurrera. Lekua ere iazko berbera izango da, «benetan txokoak merezi duelako». Hain zuzen

ere, Urkizu gainean kokatuko dira musikariak, Mendikuterren magaleko belaze eta pagadiez inguratutako Iraolako zuloa izeneko lekuan —telekomunikazio antenaren pean—, beti ere, eguraldia lagun badute; gainontzekoan Urkizuko ermitan burutuko dute kontzertua.

Entzuleak ere ikuskizun honen parte bilakatuko dira, basoetako zuhaitzek ere musikaren oihartzuna eragiten dutelarik. Ohikoa den bezalaxe, amaieran izango da tripa berdintzeko zer jan eta edana bertaraten direnentzat, «ongi eta osasuntsu izan dadila guztiontzat» heldu den uda.



Et Incarnatus orkestra iaz Urkizuko Iraolako zuloa kontzertuan. J. S.

KONTZERTUA ▶ HAINBAT DATU

Guztira zazpi piezek osatuko dute kontzertua. Hona hemen hainbat datu interesgarri:

Egitaraua.

▶ *Bruremarsj fra osterdalen* (Arr. Per H. Indrehus).

- ▶ *Motxoli* (2006, Arr. Jose Urrejola).
- ▶ *Gratia for Harp and Strings* (1994, Magnar).
- ▶ *Aurora de San Fermin* (2006, Koldo Pastor).
- ▶ *Diana Festa* (2006, Xabier Zeberio).
- ▶ *Sunrise Serenade 2trpt, piano and str* (1989, Aulis Sallinen).
- ▶ *Astrainen Balsa* (2006, Juanxo Zeberio).

Partaideak.

- ▶ Lorena Nuñez, Maider Diaz De Gereñu, Alba Gonzalez, Oscar Javier Oteo Miguel, Xabier Zeberio, Ainhoa Franco, Xabier De Felipe, Diego Gabete, Miren Zeberio, Eduard Rey, Amaia Gutierrez, Itziar Etxegia, Alicia Prieto, Joaquin Fernandez, Luis Fernandez, Lerman Nieves.
- ▶ Tronpeta: Erlantz Fernandez, Pablo Martinez.
- ▶ Txistua: Joxe Ramon Garikano.
- ▶ Harpa: Segolene Brutin.
- ▶ Airdar: Antxon Bandres; diseinua: Iñaki Epelde.
- ▶ Zuzendaria: Migel Zeberio.

 **aldama tapia**
aholkulariak
Tel.: 943 65 03 75
Faxa: 943 65 52 06
Foruen Etorbidea, 7 • 20400_TOLOSA_Gipuzkoa
gtolosa@aldamatapia.com • www.aldamatapia.com

 argiketariak & igeltseroak
iturkinak & pintoreak
arotzak
eskaionista & dekoratzaileak
zoruak & leihoak
altzariak & sukaldeak
**gremioen
koordinazioa**
Nafarroa etorbidea, 12
20400 Tolosa
Tel.: 943 65 36 40

FESTAK ONDO PASA!
T O L A R G I
Tolosako argia. Zurea
La luz de Tolosa. Tu luz
Pablo Gorosabel kalea, 34 B. • TOLOSA
Tel. 943 65 00 16 • Faxa: 943 65 00 65
Telf., matxurak: 610 44 00 88
E-posta: tolargi@tolargi.com
www.tolargi.com

TOLOSAGA JA
Tolosako energia. Zurea
Energia de Tolosa. Tu energia
Arostegieta, 18 • TOLOSA
Tel.: 943 67 53 20 • Faxa: 943 67 55 11

ANOETA ▶

Jai alternatiboan zerbaki sariduna 898 da

Herri Borondatearen Aldeko Jaietako antolatzaileek azaldu dutenez, festetan egindako zozketan saritutako zerbakia 898 da. Saridunak Itzuli tabernara joan behar du antolatzaileekin harremanetan jartzeko. Bestalde, jaien balantzea egiteko bilera antolatu dute udaletxean, bihar, 18:00etan.

TOLOSA ▶

Agoraphobia eta Kode taldeak Otsabi elkartean

Otsabi elkartean bi talderen musika entzuteko aukera izango da, bihar, 22:30ean. Sarrera doan izango da. Kode eta Agoraphobia dira kontzertuak eskainiko dituztenak. Azken talde honek bere emanaldian atera berri duen diskoaren aurkezpena egingo du.

TOLOSA ▶

Felix Yarza lehiaketako lanen erakusketa

Txinparta elkarteak iaz 75 urte bete zituen eta bere pintura lehiaketari Felix Yarza izena jarri zioten, kide honek egindako lanarengatik. Aurtun ere antolatu dute lehiaketa eta lehiari zian diren lanen erakusketaren inaugurazioa bihar egingo dute, 18:30ean. Horrekin batera, aurtengo saridunak ere jakinarazi dituzte.

VILLABONA ▶

Santioetako areto futboleko partidak bihar, Olaederran

Santio jaietako biharko areto futboleko partidak ez dira Errebote plazan jokatu, bertan San Joan sua egingo da eta. Horrela, Olaederra kiroldegian jokatu dira partida horiek. Ohi bezala, 18:30ean hasiko da lehenengo neurketa. Korkumetz eta Z.E.k jokatu dute. Ondoren, 19:30ean, 78ko Belaualdia eta Jonpo ta Txolo lehiatuko dira. Azkenik, 20:30ean, Wuitxu II eta Kixbi izango dira indarrak neurtuko dituztenak.

GUTUN@K ▶

Pello Villabonara

Ezinbestean nire egin dut ekainaren 23an Villabonako kaleetan zehar burutuko den manifestazioaren deialdia ikusi dudanean. Nire egin dut arrazoi askorengatik, Birjina, Maite, Ekhi... dira arrazoi horietako batzuk. Eta, nola ez, Pello ezagutzen dudalako eta pertsona geniala delako, ez bakarrik *punto de cruz* egiten, baita gizatasun mailan ere.

19 urte beteko dira ekaina-

ren 24an Pellok Villabonako kaleak zeharkatzen ez dituela. Beno, gezurra esaten ari naiz, Villabonako Udalean zinegotzi aukeratua izan zenean zapaldu zituen gure herriko kaleak. Baina hauek formak, hauek lagunak izan zituenak alboan. Baina egun hartan herriar askok eta askok Pello agurtzeko aukera izan genuen. Gogoangarria egun hura, bai horixe. Eta billabonatar askok eta askok bere botoren bitartez Pello gure Udale-

ko zinegotzia izan zedin erabaki zuten. Beste batzuk ez zioten horretan utzi.

Pello Villabonaren behar dugu, Pelloarekin batera gaur egun bizi dugun abagune interesgarria ahalbideratu duten gizon eta emakume guztiak gurekin behar ditugun neurri berean.

Egun espetxean bizi duen egoera ikusita mendeku politikaren biktima argi eta garbia delako Pello, milaka kilometrorra urrundua, euskaraz hitz

egitea bera debekatua bere senitarteko eta lagunekin...

Ekainaren 23an aukera izango dugu Pellori eta bide batez bere senitartekoei eta bereziki bere semeari gure elkartasuna eta babesa adierazteko. Nik halaxe egingo dut.

Animo Pello eta aurrera, Villabonako Errebote plaza zain zagok hire partida jokoa ikusteko. Bota apostua... 22-0 baietz zure alde.

ESTI AMENABARRO ▶ VILLABONA

VILLABONA ▶ POLITIKA

Pello Zelarain Euskal Herriratzeko eskatuz, bihar manifestazioa

Preso billabonatarak etzi espetxean zortzi urte beteko dituela eta antolatu dute dispertsioaren aurkako protesta

ERREDAKZIOA

Pello Zelarain billabonatar preso politikoak 8 urte beteko ditu espetxean etzi. Herriko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak manifestaziora deitu du bihar, 20:00etan, plazatik abiatuta. «Pello Euskal Herrira, etxera aldarrikatzeko» eta «dispertsio politikaren aurka, espetxe politika antzu eta kriminalaren aurkako salaketa, presoak eta euren senitartekoak zigortzen dituen politikaren» aurkako manifestazioa izango da.

AAMak azaldu duenez, «as-
teburu honetan hainbat eta

hainbat familia errepideetara aterako dira, 40 minutuz bederen euren senideak ikusi ahal izateko. Politikariak honetaz ahaztu egiten direla dirudi eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduak etengabe esango du euskal preso eta iheslarien presentzia bermatzen ez duen prozesua ez dela inoiz prozesu zilegia izango, ez eta politika ere». Bide batez, euskal gizarteari oro har eta billabonatarrei dei egiten die euskal preso eta iheslarien eskubideen alde deitzen diren ekitaldi eta deialdietan parte-hartzetuzena izateko.



Pello Zelarain. HITZA

Azkenaldian Zelarainen gain «krudelkeri politika anker bat aplikatzen ari direla» salatzen

dute. Nabarmentzen duten lehenengo datua Teruelgo espetxetik (Espainia) Alacantera (Herrialde Katalanak) urrunduta da. «Pellok seme bat du espetxean eta urrutze honek bere senitartekoei oso modu krudelean eragiten die».

Bisitak ostiralean 18:30ean eta larunbatetan 11:00etan ditu. Autoa da modu bakarra bera ikustera joan ahal izateko eta bi gidari behar dira bertara joan ahal izateko. «Emazteak ez du gida baimenik eta oraingoz hainbat herritar antolatzen ari diren sare bati esker joan ahal dira». Alacanteko espetxera iritsi orduko isolamendu modulu sartu zuten, eta senitartekoak denbora luzean egon ziren bere berririk izan gabe.

Azken «gertakari larriak» bi izan dira. Bata, euskaraz hitz egiteko debekua izan da. «Arriskutsua denez», telefonoz eta komunikazioetan erdaraz aritu behar duela jakinarazi diote». Bestea, bere emaztearekin zuen aurrez aurrekoa ukatu egin zaio. «Emaztea katxeo batera ukatu izana zen arrazoia. Pellori berari ez zioten bisisa ezaren arrazoirik eman».

Tolosako ZEZEN-PLAZA

| | |
|---|---|
| <p>EKAINAK JUNIO 17 AMATZALDEKO 6 OREAN</p> <p>ZEZENKETA EXTRAORDINARIA</p> <p>CORRIDA DE TOROS</p> <p>A ZEZEN TOROS de la Sociedad de Ganadería Toros</p> <p>D. ISAIAS Y D. TULIO VAZQUEZ</p> <p>PARA LOS PASADONES</p> <p>DENIS LORE SANCHEZ VARA IDER JAVIER LARA</p> | <p>EKAINAK JUNIO 25 AMATZALDEKO 6 OREAN</p> <p>ZEZENKETA MONUMENTAL</p> <p>CORRIDA DE TOROS</p> <p>A ZEZEN TOROS de la Sociedad de Ganadería Toros</p> <p>ALCARRUCEN</p> <p>PARA LOS PASADONES</p> <p>CESAR RINCON JAVIER CONDE SEBASTIAN CASTELLA</p> |
| <p>EKAINAK JUNIO 24 OSTEGUNA 6 OREAN</p> <p>ZEZEN-ERREKORTARIEN 2. LEHIAKETA</p> <p>gar egunko espertziola hoberekin</p> | |

Jaialdi egunetan Tolosako Zezen Plazan bakarrik salduko dira, 10:00etatik aurrera. Abonoak berritzeko edota berriak egiteko Tolosako Zezen plazan ekainaren 14tik 16ra 11etatik 14etara eta 17etatik 19etara.

SARRERAK SALGAI

| | |
|---|--|
| <p>TOLOSA</p> <p>Bar "Asteasuarra" 943 673 186 Café Bar "Frontón" 943 651 470 Asador "Ore" 943 651 911 Bar "Cantábrico" 943 653 987 Bar "66" 943 671 937</p> | <p>SAN SEBASTIAN</p> <p>Bar "Antonio" 943 429 815 c/ Bergara Bar "La Espiga" 943 421 423 c/ San Marcial</p> <p>BAIONA Office de Turismo 0033 559 460 146 Place des Basques</p> |
|---|--|

ABONOAK SALGAI %10 MERKEAGO

Argibideak eta erreserbak:
943 64 16 66
659 67 65 70
 10:00-13:00 • 17:00-21:00

EKONOMIA ▶

Papergintzaren egoera larria salatzeneko manifestazioa

«180 langile kaleratuak izan direla-eta» Tolosaldeko eta Goierriko langileak deitu ditu LABek bihar 12:00etan Triangulotik abiatuta egingo den manifestaziora

IÑIGO TERRADILLOS

Papergintzaren egoera larria salatu eta irtenbidea bilatzeko helburuz, manifestaziora deitu du bihar LABek. Hitzordua 12:00etan izango da, eta Tolosaldeko Triangulotik abiatuko da manifestazioa.

LAB sindikatuak azaldu duenez, «jakina da papergintza egoera larrian aurkitzen dela, eta horren adibide da Papera-

ria eta Araxes paper-fabrikak itxi dituztela, orotara 180 langile inguru kaleratuak izan direlarik». Hala, Tolosaldeko eta Goierriko langileei bertan parte hartzeko gonbita luzatu diete, «langileen eskubideen alde borrokatzeko».

Orain 3 aste egin zuen agerraldian ohartarazi zuen LABek papergintzaren egoera larria zela. Legorretan dagoen Papelaria —Etxezarreta (Lego-

rreta) eta Salvadora (Villabona) enpresen fusiotik sortua— lantegian, esaterako, «egungo enpresariari gestio txarra» salatu zuen eta gogoratu «Eusko Jaurlaritzak akzioak dituela» enpresa horretan. Antza, beste konpainia batek enpresa erostea litzateke Paperaliak aurrera egin ahal izateko aukeretakoa bat. Euren eskubideen alde, herenegun bertako langileek manifestazioa egin zuten Villa-

bonan. Araxes paper-fabrikari, bestalde, antzerakoa salatu dute langileek, hau da, enpresariari gestio txarra eragin duela egungo egoera. Duela hiru astetik produktioa etenda dago, eta langileek ezer ez dakitela euren indennizazioei buruz salatu dute. Andoainean dagoen Galgo Paper enpresan, berriz, lehen izan zirenez gain, beste 23 langile kaleratu nahi dituztela salatu zuen LABek.

GUTUN@K ▶

Zer dira Agustín eta Julio Rekalde?

Ixabel:

Zuk gure amorrua, ezintasuna eta etsipena ondo baino hobeto ulertzen duzun bezala, gu ere zuen familia bizitzaren ari denaren mina ulertzeko gai bagara. Baina jakin ezazu, zure bi anaiei gestioa eta jarraera hasieratik erabat desagokiak izan direla, eta ondorioz langilegoaren artean engainatuak izan garen ustea erabatekoa dela. Izan ere, enpresaren egoera ona ez dela esateak ezin du justifikatu edota argitu gabe utzi langileentzako zein enpresarengatik hain kaltegarriak izan diren zenbait gertaera eta azpizokio! Langileok bizitako argitu beharrean gaude:

1. Nagusien aldaketa bat-batekoa eta inolako azalpenik gabea.

2. Hasiera-hasieratik, Agustinen *pasotismo* jarrera: «Yo no he venido aquí a trabajar».

3. Morroi lanak egiteko geroztik profesional baten agerpena.

4. Langileekin lotutako akordio ekonomikoa bat-batean deuseztu.

5. Langile batek baja hartzeagatik soldata ez ordaintzeko agindu.

6. Kudeaketa osoan zehar, enpresaren egoerarekiko azalpenik eman ez izana langileei.

7. Maiatzaren 22an Iberdrolako enpresaren agerpena argindarra moztera, langilegoak inongo berririk ez genduela!

8. Maiatzaren 19tik nagusien erabateko desagertzea lantegitik!

Argitu nahi dugu ere «20 urte hauetan Araxes oso gaizki» zegoenaren aipamena okerra dela: aurreko nagusien garaian enpresaren mar-txa egokia zen, irabaziak egon zirene eta inbertsio txar baten ondorioz garai ilunetara itzuli gara.

Guretzat lapurra ez da bakarrik zuzenean kentzen duena. Lapurra ere bada eman behar dena ematen ez duena.

ANTXON GABIRONDO ETA

ITZIAR GOROSTIDI (ARAXES PAPER

FABRIKAKO LANGILEEN

IZANEAN) ▶ TXARAMA

LIZARTZA ▶ GIZARTEA



Saharauri jatorriko herritarrak agurtzeko festa polita

I. Terradillos ▶ Sahararren aldeko eguna burutu zuten iragan larunbatean Lizartzan. Izan ere, bertan bizi den saharauri familiako ama eta hiru seme-alaba Algeriako Tinduf hiriarren ondoan dauden Saharako errefuxiatuen kanpamentuetara joango dira urtebeterako, eta herritarrek haiek agurtzeko antolatuta zuten ekitaldia. Hala, haima barruan tea eta bertako jakiak hartu zituzten, eta Sa-

harari buruzko dokumental bat ikusteko aukera ere izan zuten. Halaber, saharauri familiako kideak nahiz Tolosa Bizi Tolosaldea Sahararekin elkarteko Aitziber Malkorrek eta Elixabet Eizagirrek Saharako egoera azaldu zuten. Lizartzarrek agurra dantzatu zieten, eta ekitaldia amaitzeko, euskal kulturako ezaugarriak oparitu zizkieten kanpamentuetara eramateko. HITZA

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Harreragileak, telefonistak, atezainak. Plazak libre.

Eskakizuna: Eskola Agiria.

Informazioa doan. 943 31 37 82.

Haur hezitzaileak. Plazak libre.

Informa zaitetz. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak.

Anoeta, Beasain, Bergara, Sorluze, Mutriku, Zizurkil eta Mendaroko udalekueetarako behar dira. 943 31 37 82.

Lanbideetako ofizialak. Pintoreak, mekanikoak, elektrikariak, arotzak, igeltseroak behar dira. Mugagabeko kontratua. 943 31 37 82.

Basozainak. Plazak libre Foru Aldundirako, udaletarako, Eusko Jaurlaritzarako. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Hurrengo deialdiak udaletarako, ikastetxeetarako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Langileak. Bergaran, Hernanin eta Errenterian peoiak, garbitzaileak eta

lorezainak behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Haur hezitzaileak. Lanpostu finkoak betetzeko plazak libre. Informazioa doan. 943 31 37 82.



Gastea bazara eta zure herriko historia ezagutu, ingurumenaz gozatu eta abenturazko udan murgildu nahi baduzu:

Uzturreko gazteluaren misterioa, gazte auzolandegia

Txandak: uztailak 3-14 / 17-28 • Adina: 15-20 urte
Astegunetan goizetan arkeologia jardueria eta eguerdian bazkaria
Prezioa: 125 euro • Plaza mugatuak

Abuztuan Edurne Pasabanekin astebeteko egonaldiaz gozatzeko da eta Pirinioetan, natur parkeak ezagutzeko, mendi igoerak eta abentura kirolekin parte hartuz.

Informazioa: Ingurumen saila Tolosaldeko Udala / www.kutxasocial.net / Aranzadi 943 46 61 42

ARANZADI

kutxa



LEITZA ▶ GIZARTEA

San Joan bezperan igerilekutik egingen du irratsaioa Karrapek

«Udari ongietorria egiteko» irratsaio berezia eskainiko du: Euskal Herriko suak eta festak, jokoak, opariak...

JAIONE ASTIBIA

San Joan suak bihar gauerditik aurrera piztuko badira ere, Karrape Irratian goiz partean egingen dituzte «udaren ongietorriko zeremoniak». Aparteko irratsaioa eskainiko du, bai estudioak Leitzako igerilekuan kokatuko dituelako eta baita edukiz ere, egunari ez ezezik, urtabeari ere badagozkion ospakizun eta gertakizunak izanen baitituzte ardatz.

«San Joan bezpera dela-eta irratsaio berezia egin genezakeela bururatu zitzaigun. Gero, gainera, igerilekuak ere ireki berriak izaki, ekipo mugikor berriari ere estreinaldia emateko aitzakian, saioa handik bertatik egin genezakeela iruditu zitzaigun», azaldu diote Unai Zabaleta eta Arantxa Iparragirre Karrape Irratiko bi esatariek HITZARI.

Pentsatu eta egin; biharko aparteko irratsaioan, gainera, Leire Karreraren lankidetzaz izanen omen dute. Hala, Iparragirre estudiotik bertatik ariko den bitartean, Zabaletak eta Karrerak igerilekuan osatuko dute talde mugikorra. Eta han bertatik ekingen diote saioari, bertako arduradunarekin egonen baitira igerilekuko aurtengo denboraldiaz hizketan.

Handik aurrera eguneko ospakizunetan murgilduko dira, Tolosako festei buruz ez ezik, Hernanikoen txupinazoa zuzenean eskainiko baitute. Eta, noski, bihar gaueko muina den San Joan suaz ariko dira ere: «Euskal Herriko hainbat herritatik gau hori nola ospatzen



Lehen planoan Iparragirre eta mahaian, Zabaleta, Karrape Irratiko bi ohiko esatariak, atzo lanean. JAIONE ASTIBIA

duten esanen digute», azaldu dute. Horretarako, besteak beste, Sakana aldeko Belexe, Ultzama eta Basaburuko Esan erran eta Mauleko Xiberoko Botza irratiekin egingen omen dituzte konexioak; Leitzako eta Aresoko ekitaldiez ere ez dira ahaztuko, noski.

Oporraldia aintzat

Irratsaioko «beste protagonistak ikasleak» izanen direla baieztatzen dute Karrapek. «Hamabostetik behin kolaboratzaile izaten ditugun unibertsitateko ikasleek parte hartuko dute, azken azterketak-eta hizpide izanez», azaldu dute, baina bestelako kontuekin etorriko diren ere izanen omen dituzte: «Instititutuko ikasle mordoska etorriko dira, ikasketak bukatuta, ikasbidaia egitera Europara, nora doazen-eta

azaltzera; opor garaia hasita egonen baita ordurako eta uda nola igaroko duten jakinen dugu».

Sari bereziak

Oraindik oporrik hartu ezin dutenentzat sari polit askoak ere banatuko dituzte biharkoan. Horretarako, saio osoan zehar, tarteka, egunerako asmatutako jokoa egingen dute Karrape Irratiaren entzuleekin eta ondoren «ikaragarriko sariak» banatuko dituztela baieztatzen dute, horiek zehaztearekin batera: «Xe paxa elastikuak; bi afari Landa jatetxean; bi txartel La Perlara joateko; oraingoz...». Suak, oporrak, jokoak, sariak... Bihar, 11:00etatik 14:00ak bitartean, zer entzuna eta zertan jostatu izanen da Karrape Irratian, beraz. Piztu Karrape, FMko 107,8an.

LEITZA ▶

Plazaola osatzeko azken egunak

Plazaola aldizkaria osatzeko azalera proposamenak eta idatziak aurkezteko epeak bukatzeaz daude. Batetik, azalen lehiaketara aurkezteko azken eguna da gaur bertan, horretan umeen nahiz helduek parte har dezaketelarik; Leitzako festak gai izanik, edozein teknikaz eginda, 50 x 65 zentimetroko neurriak gaintitu gabeko proposamenak aurkezteko beta bada oraindik, Aurrera elkarrean bertan. Bestalde, aldizkari barrenerako idatziak aurkezteko azken eguna, berriz, etzi, larunbata, bukatuko da: kontakizunak, poemak, iritziak... herritarren sormenari argitaratzeko bidea eskainiz. Kasu honetan ere elkartera bideratu behar dira.

HEZKUNTZA ▶

Gaur-biharretan ikasturte bukaerako festak

Leitzako eta Aresoko ikastetxeetan ikasturte bukaerako festak egingen dituzte gaur eta bihar. Leitzako Erleta eskolan, gaur goiz osoan zehar askotariko jokoak egingen dituzte, bai eskola atarian eta baita Agrikolan ere, zikloka banatuta. Halatsu egingen dute, bihar, Aresoko eskolan, 10:00etatik aurrera, gurasoek prestatutako hamaiketakoak egingez bukatzeko. Eta Leitzako Amazabal institutuan ere, biharko, goiza bete-ko egitaraua prestatuta dute ikasle eta irakasleek; besteak beste, ohiko futbol eta mus txapelketekin eta hamaiketakoarekin ere, noski.

LEITZA ▶

Plazako pilotako finalistak ezagun dira

Igande arratsaldean jokatu zituzten finalerdia, Plazako binakako Pilota Txapelketan, eta txapelduen izateko aukera honako bikote hauen artean dago: Alduntzin-Sagastibel-tza edo Aldaia-Olano. Izan ere, Bengoetxea-Gartzia 22-19 eta Makazagarrei 22-18 irabazi zieten, hurrenez hurren, «ordubete pasako partidak joaktuta». Finala eta 3. eta 4. lekuak erabakiko dituzten azken partidak, heldu den hilaren aurrenean, 18:30 aldera, jokatuko dituztela eman dute jakitera.



Lau finalistak. J. ASTIBIA

LEITZA ▶

Herenegungo atxiloketen aurka elkarretaratzea

Gaur iluntzean, 20:30ean, Lopeneko iturrian elkarretaratzea egiteko deialdia egin du Leitzako Askatasunak, astearte goizaldean «poliziak 12 euskal herritar atxilotu» izanagatik. Horrelako jokabideekin, «Espainiak eta Frantziak errepresio politika indarrean» dutela ikusita, bi estatuei «aski da» esateko elkarteko deia egin du elkarrekin. «Baldintza demokratikoak» eskatzeaz gain «Euskal Herria bakean uzteko» eskaera azalduko dute. Hala *PSOE errepresiorik ez!* *Konponbide demokratikoa orain!* aldarria izanen dute buru.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko ekainaren 22a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

18

hotzena

15

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



hitza

943 30 43 46

(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. San Joan abesbatzaren entsegua, 20:00etan.
Tolosa. Errota Haur Liburutegiaren inaugurazioa. 17:00etan, 1, 2, 3... *Inaxito* bertso antzerkia; 18:00etan, jolasak; 19:30ean, txokolata; arratsalde osoan, kaleko haur liburutegia.
Zizurkil. San Joan suan dantza egiteko entsegua. Gaur eta bihar, 18:00etatik 19:00etara, Atxulondon.

MUSIKA

Aitzo. Loatzo musika eskolako emanaldia. 18:00etan, Lizarbe etxean.
Amezketak. Zumadi eskolako musika ikasleen saioa. 16:00etan, eskolan.
Urkizu (Tolosa). Et Incarnatus. 20:30ean, Iraolako zuloan.
Villabona. Loatzokoen saioa. 18:00etan, Gurean.

ZINE-KLUBA

Tolosa. Ingmar Bergmannen *Saraband*. 21:30ean, Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Azpiroz, M. L. Amaroz, 9. 943 67 51 18.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.


IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAREN errepeaso, elkarrizketak...
 21:00-22:00. *Gora Euscadi Txistulari*.
 21:00-23:00. *Gau bero*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

750 omenaldi herriari

TOLOSA ▶ Yolanda Artola tolosarrak margolan erakusketa jarri du Frontonen, jaioterriari omenaldia egiteko; antzinako eta egungo Tolosa ikus daiteke bertan



15 margolan, olioak eta akuarelak, jarri ditu ikusgai Yolanda Artolak Fronton kafetegian. L. MONTES

ERREDAKZIOA

Tolosa bere 750. urteurrena ospatzen ari da. Eta asko dira herriari beraien omenaldia eskaini nahi diotenak. Yolanda Artola margolari tolosarrak ere «omenaldi xumea» egin nahi izan dio, eta Tolosari buruzko erakusketa jarri du Fronton kafetegian.

15 lanek, olioak eta akuarelak, osatzen dute bilduma. Aspaldiko eta egungo Tolosa ikus daiteke haietan: kaleak, Alde Zaharra, mendiak... Freskotak, bat-batekotasuna eta sentibiltasuna islatzen dituzte margoek eta, era berean, xehetasunak eta marrazkia bera fidelitasunez jasotzen ditu Artolak. «Gure herriaren kolorea ere oso ondo erakusten du, fiabarduraz betetako paleta erabiltzen baitu», diote adituek.

13 urterekin jaso zuen bere lehen saria, San Telmo museoan. Arte eta Dekorazioa ikasi eta, aldi berean, hainbat erakusketa jarri zituen. Berruzo artista ezagunarekin olioaren teknika ikasi zuen. Gero, Carmen Mateorekin marrazki eta pintura eskolak eman zituen. Atsedendaldi baten ondoren, 2002an eta 2004an Txinparta elkartearen Sanjoanetako Lehiaketan lehen saria irabazi zuen, eta ia bigarrena.

Frontonen hilaren 30a arte izango ditu ikusgai lanak. Baita salgai ere: «Ez dit penarik ematen nire obrarik gabe gelditzea. Izan ere, nireak izaten segitzen dute. Sekula hausten ez den lotura sortzen baita lana duenak harekin gozatzen badu. Horrek asko betetzen nau».

AGURRAK ▶



ZORIONAK
Naiara.

7 urte. Uxer, Ugaitz eta familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Mireia. Zorionak zure lehenengo urtebetetzean,

etxeko guztien partetik.



ZORIONAK,
KOVACEVIC!

Eta familia guztiazen partetik muxu bat!

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
 agurren tartea

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kibraketa kanpaina

- ▶ **egunero** 8 orrialdeko kalitateko egunkaria, euskaraz
- ▶ **uneoro** informazioa eskura www.tolosaldeko-hitza.info

KONTU KORRONTE bidez ordainduaz EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTEKO AUKERA



txartel berriarekin abantailak!
beherapenak agurretan, eskeletan eta iragarki laburretan besteak beste



□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□

egunean 0,18 zentimoren truke etxean